

# Juntagailu aurkariak: baina, baizik eta baino

## Juntagailu aurkarien esanahia

**Baizik** juntagailuaren bidez, ukatutako zerbaiti beste zerbait kontrajartzen zaio. rudiko adibidean Karlos argazkilaria dela ukatzen da eta, horren orde, okina dela baieztatzen da.

**Baino** juntagailuak baizik-en funtzio bera betetzen du. Karlos ez da argazkilaria, okina baino.

**Baina** juntagailuak bi elementuren arteko nolabaiteko kontrakotasuna adierazten du, baina, aurrekoek ez bezala, lehena ukatu gabe.



## Baina

Juntagailu honek gehienetan perpaus osoak lotzen ditu. Zenbaitetan, ordea, perpaus barruko atalak lotuz ager daiteke.

Bihar argazki erakusketa bat ikustera joan nahi dut, baina ez dakit astirik izango dudan.

Kafea hartzea izugarri gustatzen zait, baina ez zait komeni.

Hizlariak hitzaldi luzea, baina guztiz interesgarria, eman zuen.

Perpaus bietan errepikatzen diren elementuak ezabatu edo eliditu egiten dira bigarren perpausean.

Baloia indar handiz jaurti zuen, baina guztiz desbideratuta (jaurti zuen).

Atzo lanpetuta ibili nintzen, baina gaur ez (nabil lanpetuta).

Automobil bat erosi nahi dut, baina bigarren eskukoa (erosi nahi dut).

Zenbaitetan bigarren perpausaren amaieran jartzen da.

Zigarro bat nahi al duzu? Gustura erreko nuke, ez zait komeni baina.

Eskolaren batean matrikulatu behar dugu umea; zeinetan, baina?



# Juntagailu aurkariak: baina, baizik eta baino

## Baizik eta baino

Juntagailu hauen bidez bi osagai kontrajartzen dira, bietatik lehena ukatuz eta bigarrena baieztatuz. Lehen zatia, beraz, ezezkoa da beti, eta bigarrena baiezkoa. Gainera, kontrajartzen diren osagaiak perpaus barruko galdegaiak izan ohi dira, ez perpaus osoak.

**Baizik:** bigarren osagaiaren hasieran edo bukaeran jar daiteke. Hasieran jartzen denean, ETA partikula har dezake indargarri gisa.

- Hori ez zuen Martinek esan, bere anaiak baizik.
- Nire autoa ez da gorria, granatea baizik.
- Ez nator hitz egitera, baizik (eta) zuek esan nahi didazuena entzutera.
- Ez bat, asko baizik.
- Ez behin, askotan baizik.
- Ez sakabanatzeko, biltzeko baizik.
- Ez irakasle bezala, ikasle eta entzule isil eta motel gisa baizik.
- Nire autoa ez da gorria, granatea baizik.
- Ez gaitzazu utz tentaldian erortzen, baizik (eta) libra gaitzazu gaitzetik.

**Baino:** bigarren osagaiaren amaieran jarri behar da beti.

- Ez da goizetan etortzen, arratsaldeetan baino.
- Nik ez dut okela eskatu, legatza saltsan baino.
- Han daudenak ez dira ardiak, ahuntzak baino.
- Hori ez da zurea, nirea baino.



Baizik eta baino balio murriztailearekin erabil daitezke ezezko perpausetan. Halakoetan **baino ez** adierazpenaren balioa hartzen dute.

Gure Gorkak ezin du hori egin, bi urte baizik( =baino ez) ez dauzka.

Herriko zaharrenek baizik ez (=baino ez) zuten ikusi.

Ez bata ez bestea azalez baizik (=baino) ezagutzen ez ditugunok.

Estrukturalistak, izan ere, ez dira berriki baizik (=baino) sartu gurean.

Juntagailu aurkariak: baina,  
baizik eta baino

**Jarri baina, baino edo baizik ondorengo esaldietako hutsuneetan.**

Kafea hartzea izaugarri gustatzen zait, baina ez zait komeni.

Hori ez da gorria, granatea baizik (edo baino).

- 1 Atzo lanpetuta ibili nintzen, \_\_\_\_\_ gaur ez.
- 2 Automobil bat erosi nahi dut, \_\_\_\_\_ ez berria, bigarren eskukoa \_\_\_\_\_.
- 3 Heldu zinen, bai; \_\_\_\_\_, beti bezala, berandu.
- 4 Han daudenak ez dira ardiak, ahuntzak \_\_\_\_\_.
- 5 Eskolaren batean matrikulatu behar dugu umea; zeinetan \_\_\_\_\_?
- 6 Bai bizikleta merkea, 100 euro \_\_\_\_\_ ez du balio!
- 7 Ez dut esan nik egingo dudarik, \_\_\_\_\_ eta, norbaitek egin nahi badu, prest nagoela berari laguntzeko..
- 8 Hau ez da zurea, nirea \_\_\_\_\_.
- 9 Ezkerrerantz doan mendiko bide estu \_\_\_\_\_ ondo asfaltatu bat hartu behar da hara heltzeko.
- 10 Ikasle zintzo, esaneko eta guztiz jatorra da, \_\_\_\_\_ zera baino alferragoa.
- 11 Trenak bederatzieta etorri behar zuen, \_\_\_\_\_ hamarretan etorri zen.
- 12 Zuk esaten duzun hori ez da Zornotzan bizi, Galdakaon \_\_\_\_\_
- 13 Neska horiek ez ziren Beasaingoak, Zumarragakoak \_\_\_\_\_
- 14 Nire bizi guztian behin \_\_\_\_\_ ez naiz egon Donostian.





**Juntagailu aurkariak: baina,  
baizik eta baino**

**Berridatzi ondorengo esaldiak baina, baino edo baizik erabiliz**

> Bukaturik dagoela ematen du; hala ere, zerbait falta da.  
(baina) Bukaturik dagoela ematen du: baina zerbait falta da.

1 Lan gogorra izan da; dena den, denek gustura egin dute.  
(baina)

2 Azkenean ez diogu liburu bat erosi; bideo zinta bat erosi diogu.  
(baino)

3 Zuen onerakO esan dut; zuek, berriz, txartzat hartu duzue.  
(baina)

4 Oraingoan nota eskasagoak lortu ditu: sei bikain besterik ez diote ipini.  
(baino)

5 Lan hau bukatuta daukat; beste hori, oster, hasi gabe oraindik.  
(baina)

6 Ez duzu nik agindutakoa egin; zuk nahi izan duzuna egin duzu.  
(baizik eta)

7 la diru guztia gastatu dut; hiru euro bakarrik geratzen zaizkit.  
(baizik)

8 Azterketa ez da gaur izango; bihar izango da.  
(baino)

9 Etxea txikiegia da, 60 metro karratu ditu bakarrik.  
(baizik)

10 Eguberriak ez dira urtarrian ospatzen; abenduan ospatzen dira.  
(baino)

11 Ezagutzen dut mutil hori; hala ere, ez naiz bere izenaz gogoratzen.  
(baina)

